

"Naturaren sekretua", zientziari buruzko hausnarketak Pedro Miguel Etxenikerekin

Dokumentala Bilbo Zientzia Plazan proiektatuko da irailaren 19an eta, emanaldiaren ondoren, protagonistarekin solasaldia izango da

Bilbo, 2023ko irailak 11. [Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) ekoitzitako "Naturaren sekretua" dokumentala [Bilbo Zientzia Plazan](#) (BZP) berrestreinatuko da.

Zientzia-dibulgazioko ekitaldirik handienean, ikus-entzunezko lan hau berrestreinatuko da Pedro Miguel Etxenike Euskal Herriko Unibertsitateko Materia Kondentsatuaren Fisikako katedradunaren, Donostia International Physics Center-eko (DIPC) presidentearen eta Jakiundeko (Euskal Herriko Zientzien, Arteen eta Letren Akademia) ohorezko presidentearen bizitza eta lana ezagutzeko.

80 minutuko iraupena duen lanean, Etxeniketik zientziaren inguruan egindako hausnarketak azaltzen dizkio ikusleari, zer den eta zertan datzan galdetuz. Beraz, fisikari ospetsuak hausnarketa bat proposatzen du, edertasuna egiaren irizpidea ote den galdetzetik abiatuta.

"Naturaren sekretua" dokumentalaren proiektzioa Miren Bego Urrutia EHUko Fisiologiako irakasle titularrak zuzenduriko solasaldirako abiapuntu izango da. Bertan, bertaratutakoek, Etxenikerekin hitz egin ahal izango dute eta planteatutako hausnarketetan lagundu.

Proiektzioa eta ondorengo solasaldia irailaren 19an asteartean izango dira, 18:30ean Bizkaia Aretoa-UPV/EHUko Mitxelena Auditorioan.